



# e-Liburutegia

Liburu digitalen mailegua

PC / Mac



ePUB

Liburu digitalak behera kargatzeko eta irakurtzeko erabiltzailearen eskuliburua



## PC / Mac

Ordenagailuak (PC / Mac)

Eman beharreko urratsak:

1. Adoberen ID bat sortu
2. Adobe Digital Editions programa (PC / Mac) instalatu
3. Eskatu liburu bat maileguan eta Adobe Digital Editions programaren bidez ireki



## PC / Mac

### 1. urratsa: Adoberen ID bat sortu

1. Adoberen ID bat lortzeko ekin helbide honetatik:  
<http://www.adobe.com/es/account/sign-in.adobedotcom.html>
2. Egin klik «**Adoberen Id bat lortu**» botoian:

3. Bete formularioa eta gogoan gorde posta elektronikoaren helbidea eta sortutako pasahitza. «Irakurri dut eta erabilera-baldintzak eta pribatasun-politika onartzen ditut» laukia markatu. Egin klik «Erregistratu» laukian.

4. Zure Adobe IDa formularioan idatzitako posta elektronikoaren helbidea da. Gorde helbide hori eta sortutako pasahitza. Biak ala biak beharko dituzu softwarea eta liburu digitalak irakurtzeko erabiliko dituzun gailuak konfiguratzeko.

## PC / Mac


### 2. urratsa: Adobe Digital Edition programa instalatzea (PC / Mac)

Adobe Digital Editions aplikazioak aukera ematen dizu liburu digitalak irekitzeko eta zure irakurgailura transferitzeko. Jarraian datozen argibideek Adobe Digital Editions programaren 2.0.1 bertsioa instalatzeko balio dute. Berori da instalatzea gomendatzen dugun bertsioa.

1. Jo helbide honetara: <http://www.adobe.com/support/digitaleditions/downloads.html>
2. Egin klik zure sistemari dagokion aukeran (Windows edo Mac)

Name	Size	Date
Adobe Digital Editions 2.0.1	Macintosh (17.3 MB) ←	07/15/2013
	Windows (5.7 MB) ←	


3. Izan gogoan zer nabigatzaile erabiltzen duzun, instalazioari ekiteko modua aldatzen baita. Adobe Digital Editions programa instalatzen hasteko markatu "Lizentzia-kontratuaren baldintzak onartzen ditut" laukia eta egin klik «Hurrengoa» botoian.




## PC / Mac

### 2. urratsa: Adobe Digital Edition programa instalatzea (PC / Mac)

4. Jarraitzeko egin klik «Instalatu» botoian:




5. Instalazioa behin amaituta, egin klik «Itxi» botoian. Adobe Digital Editions programa automatikoki abiaraziko da. Menuko «Laguntza» aukerara jo, eta jarraian egin klik «Baimendu ekipoa» delakoan.



## PC / Mac

### 2. urratsa: Adobe Digital Edition programa instalatzea (PC / Mac)

6. Zure Adoberen IDa (posta elektronikoaren helbidea) eta saio-hasieran sortutako pasahitza sartu. Gero egin klik «Baimendu» botoian.





7. Egin klik «Onartu» botoian. Zure ekipoak baimena dauka liburu digitalak behera kargatzeko.

## PC / Mac

### 3. urratsa: Liburu bat maileguan eskatzea eta Adobe Digital Editions programaren bitartez irekitzea

1. Ireki zure nabigatzailea eta jo **Liburuklik** atarira: <http://www.liburuklik.euskadi.net>. Bertan, **e-Liburutegia** atalera joan, eta aurkitu maileguan hartu nahi duzun liburua.
2. Behin gustuko liburua aukeratuta, egin klik haren azalean. Liburuaren deskribapen-fitxara heldu zara. «Mailegatu» botoia sakatu eta zure nortasuna egiaztatzeko pantailara helduko zara. Gogoan izan erabili beharreko erabiltzaile-izena eta pasahitza Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Sarean erabili ohi dituzunak direla.



## PC / Mac

### 3. urratsa: Liburu bat maileguan eskatzea eta Adobe Digital Editions programaren bitartez irekitzea

- Behin identifikatutakoan, «Liburua deskargatu» aukeratu mailegua egiteko. Ez ahaztu **e-Liburutegia** erabiltzeko Arauak irakurtzea.
- Deskarga onartuz gero, Adobe Digital Editions programa automatikoki irekiko da. Gozatu zure liburua!



Liburua deskargatu

On-line irakurri

**Laura Mintegi Lakarra**  
**Bai... baina ez**  
Euskera  
Elkar, 01/11/2012  
Orriak: 180  
FICCION MODERNA Y CONTEMPORANEA

**Sinopsia:** Ikasturte-amalerako bidaiari Mallorcara doa taldea. Asmoa, noski, ondo pasatzea, parrandan ibiltzea eta, ahal dela, ligatzea. Irakasleek ekitaldi kulturalaz bete dute egitaraua ordea. Hondartzako bainuen eta monumentuen bisiten artean, neska-mutilen arteko hurbiltze eta urruntzeak ere gertatuko dira, amodioaren jolas betikoan: bai baina ez baina bai.

